

Bizikletaren arloan kronometadore eta arbitro bezala hasi eta gaur egun E.T.T.n lanean dabilen Alberto Lasueni egindako elkarrizketa dogu hurrengo hau.

ERMUKO TXIRRINDULARI TALDEA



DROGETENITTURRI: Noiz eta zelan hasi zan martxan E.T.T.?

ERANTZUNA: 1.979.urtean Santiaxuetan jubenilen karrera bat egitea izan zan gure asmoa eta gainerakoak gero etorri dira. Behin federerazioan sartu ez-kero hareek beste asmo batzu daukez berotu ginduezan eta apurka apurka orain arte. Neguan ziklo-krosa, Maia-tzean Zubiaurre saria eta eskolako mutikoekin (infantilak, kadeteak eta jubenilak) ba aurrera goaz.

D: Zenbat gazte dabilzt taldean eta zelako sariak irabazi dozuez?

E: Danetara berrogeiren bat lagun dagoz, emakume bi heuren artean, inoz gehiago be egon dira.

Urtero bastante karreratan parte hartzen dogu: Trofeo Andarakas, Urbietan abar. Jubeniletan aurtan hirugarren egin dogu eta normalean tropelean ibiltzen gara.

Behin Frantzian be 5 egunetan karrera baten parte hartzen izan ginan eta pozik gagoz; guk gazteei dakigun guztia erakusten dautsegu eta hortik aurrera ezin leike jakin profesionalik urtengo daben eta horretan pentsatzea ametsetan ibiltzea da.

D: Zelako eragina izaten dau Tour'ak edo ingurukoren batek txapelketak irabazteko?

E: Edozein gauza modan dagoenean gazte danak hari begira egoten dira eta Marinok zein beste batek irabazten dabe-nean, danak bizikleta hartu eta kalera urtetzen dabe. Horixe da txirrindulari arlorako mezederik haundiena; zenbat eta urragokoa izan, animo haundiagoa hartzen dabe.

Guk gazteei dakigun guztia erakusten dautsegu eta hortik aurrera ezin leike jakin profesionalik urtengo daben.

Aukerarik izan ez-kero datorren urtean Betiondon ziklo-kros txapelketa bat egitea nahi genuke eta bertara Marino, Gorospe... maila oneko txirrindulariak ekarri.



IRUDI ARGAZKIAK

Irudi

Zubiaurre, 26, Tlf.:172459
ERMUA

D: Zer deritzozu ziklo-kros, zikloturismo, 'mountain bike' bezalako modalitatei?

E: Guk ziklo-krosa urte gehienetan egin dugu eta entrenamentu ona da. Batez be denboraldia amaitzen danean muskuloak loak hartuta egoten dira eta lantzeko, ziklo-krosa eta gimnasia (masajeak, pisuak jasotzea ta abar) egitea benetan kimenigarriak dira. Zikloturistak, guk begi onez ikusten doguz. Ermuan, Totorika eta beste batzuk bizikletan asko ibiltzen dira eta horrez gainera inguruko herrietan Ermuko zikloturistak famatuak

D: Dirudienez, astero batzarrak egin, lasterketak antolatu, bizikleta konpondu eta abar... zaletasun honek ematen dautsue poztasunik ala lan asko besterik ez?

E: Lana ta poztasuna. Honetan gabizenok geure gustoz eta osasunaren mezedarako gatoz. Telebistaren aurrean jarrita jai dago. Inoz tokatzen dira egunak lasterketara barik beste leku batera gus-tora joango ginatekenak baina gure afizioa danez ez baginake bizikletaz arduratuko askoz be txarrago; gizonak 'hai-xea' behar dau eta gurea bizikletea da.

betiondon ziklo-kros txapelketa bat egitea nahi geunke ta bertara Marino, Gorospe...maila oneko txirrindulariak ekarri. Azkenengo hau oraindino prestatzeko dago.

D: Gauza guzti horreek gastu ugari dauke. Zelako diru laguntzak daukabez aurre egiteko?

E: Herriko dendarak, tallerrak laguntzen daukue; horrez gainera sponsor batzuk ere badaukaguz (Orbea, Indartu) eta Udaletxeak eta Txirrinduari Federazioak be laguntzen dabe.



dira.

Bizikletan modalitate guztiak egin behar dira eta batzuk bala baten pare ibiltzeko edadetik pasauta dagoz.

D: Zoritzarrez, sarritan entzun dogu bizikleta istripu bat izan dala, zaurituak dagozela eta bidegorriak behar beharrezkoak doguzala. Zer pentsatzen dozu horretaz?

E: Kotxeek askotan errespeto gitxi izaten dautse txirrindulariari, ostera beste batzutan heurak be alkarren parean ibiltzen dira behar dan baino leku haundia goa okupatuz, baina deskuido bat dagoenean beti errua guk ordaintzen dogu; horrexegaitik bide-gorriak gauza ederrak izango litzatekez. Gaur egun askok ez dabe bideetara urtetzerik nahi izaten, beldur dira eta hau bizikletaren etorkizunerako txarra da.

Guk pentsatzen dogu gero gazteagoak etorriko dirla lan hau jarraitzeko baina bitartean ahaleginak egingo doguz.

D: Zer asmo daukazue datorren urterako?

E: Aurtengo martxari jarraituz gazteenak Angel Correarekin ibiliko dira, jubelak bertatik kontrolatuko doguz eta kadetetan Ermuko eta Elorrioko taldeekin bat egingo dogu. Maiatzean 'Zubiaurre saria', Santixau saria eta beste lasterketa batzuetan parte hartzea dagoz gure asmoan.

Horrez gainera azkenengo urteetan moduan, Bira Ermutik pasatzeko saiaturako gara.

Aukerarik izan ezkerro datorren urtean

Momentuz gure egonlekua Batzokian daukagu, pentsatzen dot egunen eta udaletxeak sekula ez dauku ezetzik esan, eta hoberik lortu arte hamen ondo arreglatzen gara.

D: Amaitu baino lehen besterik esan nahi badozu?

E: Bueno, Txirrindulari Taldean ibili nahi daben danak (9 urtetik 18ra.) etor daitezala lehen bait lehen federatu eta erropak, bizikletak, taldeak prestatzen hasteko.

Ermuako gazte guztiei zuzendutako dei honegaz agurtu genduan gure hizlaria; behar bada egunen batetan gure herrian izango da txirrindulari famaturik baina bitartean lanean gogor dihardue

SEGI AURRERA!